



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 13a

103. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00009. Foru-lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzkoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/DEC-00036. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin bat egiten baitu. Eledunen Batzarrak onetsi du (20. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/PES-00366. Galdera, Estatuak ordainduko dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostuei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (21. or.).

—11-24/PES-00367. Galdera, eskola-garraioaren zerbitzuaren eskariari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (22. or.).

—11-24/PES-00368. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik larrialdi-egoteratan gerta daitezkeen kalteei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (23. or.).

—11-24/PES-00369. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egotearen ondorioei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (23. or.).

—11-24/PES-00370. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik ZIUko pazienteei begira gerta daitezkeen kalteei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (24. or.).

—11-24/PES-00371. Galdera, kontratatutako bide, ubide eta portuetako ingeniari kopuruari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (24. or.).

—11-24/PES-00372. Galdera, jakiteko ea osasun-sistema publikoak Espainiako zenbat autonomia-erkidegotan daukan enpresa-entitate publikoaren izaera juridikoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (25. or.).

- 11-24/PES-00373. Galdera, Nafarroako Arkeologiako Plan Zuzendariari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (26. or.).
- 11-24/PES-00374. Galdera, Osasun Publikoaren Institutuei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (26. or.).
- 11-24/PES-00375. Galdera, Elizondoko osasun-etxean medikuen lanpostu hutsak betetzeko neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (27. or.).
- 11-24/PES-00376. Galdera, Funtzio Publikoaren mende egoteak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat eta Osasun Publikoaren Institutuarentzat dituen ondorioei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (27. or.).
- 11-24/PES-00377. Galdera, Egiturako, Plantillako eta Langileen Aldi Baterako Kontrataziorako Zerbitzuaren zuzendariak eta haren taldeak dimisioa emateko arrazoiei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (28. or.).
- 11-24/PES-00378. Galdera, Nafarroako Gobernuaren navarra.es atariko eskabide orokorraren ereduari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (28. or.).
- 11-24/PES-00379. Galdera, arma eta lehergaiak direla-eta Foruzaingoak jarritako salaketei eta egindako konfiskatzeiburuzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (29. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- 11-24/CDP-00003. Irisgarritasunari buruzko 2024ko Plan Operatiboa. Erabaki-proposamenak aurkezteko epea (30. or.).

J SAILA:**Ponentziak:**

- 11-23/PON-00002. Ponentzia bat eratzeko proposamena, despopulazioari aurre egiteko foru-lege bat taxutzeko. Lurralde Kohesiorako Batzordeak ezetsi du (31. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00009. Foru-lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko irailaren 4an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzko foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

2. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epea irekiko da, **2024ko irailaren 30eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru-lege proiektuari.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzko foru-lege proiektua

AURKIBIDEA

Zioen azalpena

Atariko titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

2. artikulua. Arauaren helburuak.

I. titulua. Sustapen Ekonomikorako Eremuak

3. artikulua. Definizioa.

4. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

5. artikulua. Helburuak.

II. titulua. Halako eremuak eratzeko prozedura

6. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremua eratzeko ekimena.

7. artikulua. Halako eremuak eratzeko prozedura.

8. artikulua. Berresteko prozesua.

9. artikulua. Eratzeko baimena.

10. artikulua. Hitzarmena.

11. artikulua. Publizitatea.

12. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremu bat udalez gairikoa zona geografikoetan eratzeko prozedura.

III. titulua. Antolaketa eta funtzionamendua

13. artikulua. Organoak.

14. artikulua. Batzar Orokorra.

15. artikulua. Zuzendaritza Batzordea.

16. artikulua. Lehendakaria.

17. artikulua. Kudeatzailea.

18. artikulua. Parte hartzeko kontsulta-foroa.

19. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremuaren estatutuak.

IV. titulua. Finantzaketa

20. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremuen baliabide ekonomikoak.

21. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremuak finantzatzeko nahitaezko ekarpenak.

22. artikulua. Salbuespenak.

23. artikulua. Ekarpena ordaintzeko betebeharra.

24. artikulua. Kuantifikazioa.

25. artikulua. Hobariak.

26. artikulua. Sortzapena eta ordainketa.

27. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremurako ekarpenen kudeaketa, bilketa eta aurkartztea.

28. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremuen aurrekontua.

V. titulua. Indarraldia eta azkentzea

29. artikulua. Indarraldia.

30. artikulua. Desegitea eta likidazioa.

Lehen xedapen gehigarria. Sustapen ekonomikorako eremuak eratu eta hobetzeko laguntzak.

Bigarren xedapen gehigarria. Emakumeen eta gizonen berdintasuna.

Hirugarren xedapen gehigarria. Agenda 2030eko helburuak.

Azken xedapena. Erregelamendu bidezko garapena.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

ZIOEN AZALPENA

I

Espainiako Konstituzioak 130.1 artikuluan jasozten duenez, botere publikoak sektore ekonomiko guztien modernizazioaz eta garapenez arduratu behar dira.

Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko eskumen banaketari dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 149.1.13.a artikulua Estatuari esleitzen dio eskumen eskusiboa "jarduera ekonomikoaren planifikazioaren oinarrien eta koordinazioaren arloan", eta, 148.1.13.a artikuluan xedatzen duenez, autonomia erkidegoek beren gain

hartzen ahalko dituzte bakoitzaren garapen ekonomikoa sustatzearen arloko eskumenak.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskusiboak esleituak ditu "Nafarroan garapen ekonomikoa sustatzeko", bai eta barne merkataritzaren eta industriaren arloan ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56. artikuluko 1. paragrafoko a), b) eta d) letretan jasotako aurreikuspenez baliatuz. Nafarroak eskumen eskusiboa du, halaber, turismoaren sustapen eta antolamenduaren arloan, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.13 artikuluan emana.

Era berean, foru lege honek, zeinak jasangarritasuna, hiriak biziberritzea eta gizarte inklusioa sustatzeko xedea ere baitu, oinarria hartzen du Nafarroako Foru Komunitateak lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan duen eskumen eskusiboan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.1 artikulua-rekin bat.

Horrez gain, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du bere toki entitateen tributuen eta gainerako finantza bitartekoen gainean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikulua-rekin eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluko VI. kapituluarekin bat.

Azaldu bezala, Konstituzioak eta estatutuak taxutzen duten esparru horrekin bat etorritz ematen dira foru lege honen xedapenak, erabat errespetatuz, orobat, toki araubideko oinarritzko arauak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta udal autonomiaren printzipioa.

II

Foru lege honen helburua da ahalbidetzea Foru Komunitatean sustapen ekonomikorako eremuak sortzea, horien bitartez ekimen ekonomikoak sustatzeko, hiriguneak biziberritzeko eta bestelako inguruneak ere hobetu eta sustatzeko, hala nola industrialdeak edo eremu turistikoak, besteak beste.

Sustapen ekonomikorako eremuak arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako lanabes baten egokitzapena dira. Lanabes hori, nazioartean «Business Improvement District» (BID) izenez ezaguna, sektore pribatuaren eskutik sortu zen, hiriguneak biziberritzeko eta deszentralizazioari aurre egiteko asmoz. Zona geografiko

zehatz batean, ekonomia-jarduerak garatzeko egokiak diren eta, aldi berean, etxebizitzetarako erabili ezin daitezkeen ondasun higiezin jabetzaren titularrek edo enpresaburuek gehiengoz erabakitzen dute, parte-hartze prozesu baten ondotik, beren gain hartzea ekarpen ekonomikoak egiteko betebeharra, horien bidez beren enpresa-eremua mantendu, garatu eta sustatuko duten zenbait jarduketa finantzatzeko xedeaz.

BID horiek azkar hedatu dira kontinente guztietan duela 50 urte sortu zirenetik, eta gaur egun BID asko daude jardunean munduko hainbat hiritan; horrek erakusten du tresna eraginkorrak direla haien ekintza eremuaren garapen ekonomikoan laguntzeko. Espazio publikoaren kudeaketaren ikuspuntutik, berriz, BIDak lagungarriak dira erabakiak hartzeko zona jakin batzuen bizitasuna eta jasangarritasuna hobetzeko moduari buruz, erabaki horiek subiranotasun handiagoarekin eta gaierekin zerikusia duten pertsona guztien partaidetzaz har daitezzen, eta kontrola eraginkorragoa izaten, kontuak emateko prozedura batez baliatuta. Beste hitz batzuekin esanda, frogatu dute hiriguneen biziberritze eta gobernantzarako tresna ona direla.

Sustapen ekonomikorako eremuak tresna berritzaile bat dira, hurbileko merkataritza eta hirikoa bultzatzeko egun dauden tresnen mugak gainditu nahian sortu dena. Nafarroako txikizkako merkataritza hurbila bultzatzeko planean (2018-2020) nabarmendu zenez, eremu edo sektoreen araberrako elkarteen eta elkartekideen kopurua txikia dela ikusi da. Izan ere, merkataritza eremuetako elkarteen kopuru txikia da erakunde horien arazo nagusietako bat gaur egun; horren ondorio zuzena da haien finantzaketa eskasa, eremuko merkataritza arteko lankidetzaren falta dela-eta, merkataritza suspertzeko abian diren estrategien onurak jasotzen badituzte ere ez dutelako inolako ekarpenik egiten estrategia horiei eusteko. Horrek dirulaguntza publikoekiko mendekotasun handia eragiten du.

Hortaz, finantzaketa oinarritzen da erabat borondatezkoak diren ekarpen pribatuetan eta denboran aldakorrek diren laguntza publikoetan, eta hori, batetik, ez da aski biziberritzeko plan onak garatzeko eta, bestetik, galarazten du epe ertaineko estrategiak planifikatzea eta kudeaketa profesionalizatzea.

Sustapen ekonomikorako eremuak bitarteko egokiak dira hirietako merkataritza-gune irekien sustapen eta garapen ekonomikorako, baina haien helburua haratago doa. Haien bidez, Nafarroako udalerriek hirigintza arloan dituzten desafio

berriei heldu eta hiri deszentralizazioak dakartzan ingurumen arazoei aurre egin nahi zaie.

Hiri-jarduera ekonomiko osoak, merkataritza horren funtsezko zatia dela, zeregin ezin garrantzitsuagoa du gure hirietan. Gure biziguneetan merkataritza eskaintza zabala eta askotarikoa mantentzeak hirietako bizitza dinamizatzen du eta laguntzen du hiriguneak trinkoagoak eta jasangarriagoak izaten. Jarduera ekonomikoak lagungarriak dira espazio publikoa biziberritzen eta kohezio soziala hobetzen dute. Horrenbestez, arrazoi ugari daude, ekonomikoak ez ezik hirigintza, ingurumen eta gizarte arlokoak ere, Nafarroako udalerrietako hiri-bilbean dauden ekonomia-jarduerak mantendu eta bultzatzeko. Hiriguneetako merkataritza jardueraren ereduak -hirietako periferietan dauden azalera handiko saltokiekin eta aisialdiko eremuekin alderatuta- aukera ematen du lurraldearen okupazioa eta erabilera zentzuzkoagoak izan daitezzen, eta hirigintza jasangarriagoa izaten ere laguntzen du, ingurumenaren gaineko inpaktua murriztearekin batera, mugikortasuna eta joan-etorrien kopurua txikiagoak direnez gero.

Bestetik, sustapen ekonomikorako eremuen oinarrian dagoen BID ereduaren ezaugarriak malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna dira, bai herrialde bakoitzeko ezaugarri eta beharretara, bai ezartzen den zona geografiko zehatz bakoitzean daudenetara. Malgutasunari eta egokitzeko gaitasunari esker, eredu beste helburu batzuetarako ere baliatu da, hala nola destino turistikoaren sustapenerako eta berrikuntzarako. Arau honek bide ematen du sustapen ekonomikorako eremuak ez daitezzen izan soilik hiri-jarduera ekonomikoa sendotzeko tresna bat, erabilgarriak izan daitezkeelako, halaber, industrialdeen kudeaketa hobetzeko edo destino turistikoaren erakarmena areagotzeko, besteak beste.

III

Foru lege honek irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen izaera ematen die sustapen ekonomikorako eremuei; horrez gain, modu autonomoan kudeatzen dira eta haien helburua da zona geografiko zehatz baten erakarmena eta lehiakortasuna hobetzea.

Aurre-aurreneko helburua inguru zehatz bateko beharrei erantzutea eta bertako eragile ekonomikoen lehentasunak betetzea dutenez, eremuak eratzeko ekimena eragile ekonomiko horiei dago-kie, ez beste inori. Hau da, sustapen ekonomikorako eremuak eratuko dira soilik enpresaburuek eta profesionalek halakoak eratzea erabakitzen duten tokian, baldin eta lortzen badute jarduketa

horien onurak jasoko dituztenen babesa eta finantzaketarako konpromisoa, eta horiek sortzea ezin da inola ere sektore publikotik inposatu. Foru legeak zehatz-mehatz arautzen du zein diren baldintzak halako eremu bat eratzeko ekimena aurkeztu eta onesteko, prozedura zeharo demokratikoa erabiliz, udalek gainbegiratuta.

Kontuan hartu behar da, halere, sustapen ekonomikorako eremuek gehienbat espazio publikoan jardunen dutela eta haien jarduketek eragina izan dezaketela interes orokorretan, nahiz eta, zalantzarik gabe, ondorio onak ere ekar ditzaketen hirietako bizitza suspertzeko, oro har. Gauzak horrela, bitartekoak ezarri behar dira sustapen ekonomikorako eremuek berekin ekar ez dezaten espazio publikoaren kudeaketa pribatua edo administrazio publikoaren papera betetzea horiek eman beharreko zerbitzuetan edo bete beharreko jardueretan. Eta, beste alde batetik, eragotzi behar da administrazio publikoek beren eginkizunak albo batera eta bete gabe uztea sustapen ekonomikorako eremuak sortzen diren tokietan.

Foru lege honetan aurreikusirik daude mota desberdinetako tresnak, ziurtatuko dutenak sustapen ekonomikorako eremuek, beren helburuak betetzean, interes orokorrekin bat jarduten dutela eta ez dutela berekin ekartzen espazio publikoaren pribatizazioa. Lehenengo eta behin, udalek baimendu beharko dute eremu horien eraketa, egiaztatu ondoren jarduketa plana interes orokorrekin bat datorrela eta ez duela eskumen publikorik beretzat hartzen. Helburu berarekin, udalek beren ordezkariak izanen dituzte sustapen ekonomikorako eremuetako batzar orokorrean eta zuzendaritza batzordean eta, horrekin batera, administrazio publikoek eremuen jarduketan gaineko kontrola izateko bide batzuk ezartzen dira. Baina zalantzarik gabe, xede horiek lortzeko tresna nagusia hitzarmena da, sustapen ekonomikorako eremuak eta udalak izenpetu beharrekoa, bertan ezarriko baitira aldeetako bakoitzak bere gain hartzen dituen betebeharrak. Hitzarmen hori funtsezkoa da bermatzeko interes publikoak eta pribatuak koordinatzen direla eta sustapen ekonomikorako eremuak arlo publikoaren eta arlo pribatuaren arteko elkarlanerako formula eraginkorra direla, sektore pribatuak eta publikoak berezko dituzten jarduketa esparruak errespetatuta betiere, haien artean nahasbiderik edo inbasiorik gertatu gabe.

IV

Erregulazio honen funtsezko elementua sustapen ekonomikorako eremuen finantzaketa sistema da, zeina oinarrituta baitago honakoek egin beharreko nahitaezko ekarpenetan: dena delako zona

geografikoan dauden ekonomia-jardueren titularrak, batetik, eta, bestetik, ondasun higiezin okupatu gabeak jabetzan dituztenek, ondasun horiek etxebizitzetarako erabili ezin badira eta ekonomia-jarduerak hartzeko egokiak badira.

BID eredia herrialde bakoitzera egokitzeko bertsio guztietan, BIDen aurrekontua finantzatzen laguntzeko betebeharra ez da aldatzen, emaitza onen oinarria delako: finantzaketa aski eta denbora luzerako izateak aukera ematen du BID bakoitzaren behar espezifikoerentzako beharrezkoak diren jarduketan plangintza egiteko, kudeaketa profesionalizatuaren bidez. Ordainketa horiek nahitaezkoak izateak ahalbidetzen du "free riders" direlakoak agertzeari aurka egitea, hau da, ekimen kolektibo hauen onurak jaso bai baina horiei laguntzeko ekarpen ekonomikorik egiten ez dutenak. Elkarrekin osatzeko joera apala eta borondatezko ekarpenetan oinarritutako finantzaketa sistema, bi horiek dira arrazoi nagusiak orain arte merkataritzaren dinamizaziorako garatu diren ekimenen emaitzak apalak izateko. Arazo nagusi horri soluzioa eman nahian ezartzen da sustapen ekonomikorako eremuen finantzaketari diruz laguntzeko betebeharra.

Nahitaezko ekarpen horrek zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoaren izaera du. Sustapen ekonomikorako eremuek beren helburuak lortzeko interes publiko desberdinak daudenez, justifikaturik dago ordainketarako betebeharrak ezartzea. Aipatutako prestazio mota Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian jasotzen direnetako bat da.

Izan ere, hiriguneetan dagoen merkataritzaren lehiakortasuna eta erakarmena hobetzeak aberastasuna eta enplegua sortzeaz gain, aukera ematen du Nafarroako udalerrietako merkataritzaren nortasun berekia eta berezia sendotzeko, homogeneotasunerako joera indartsuak eragiten dituen beste merkataritza mota baten aurrean, zeinak, formatu klonikoetan gauzatuta, kontsumitzaileen eskura jarritzen den merkataritza eskaintza murrizten baitu, eta hiriek berezkoa duten nortasunaren galera eragiten. Bestalde, hiriguneetan merkataritza eskaintza askotarikoa eta gertukoa izateak hiri bizitza dinamizatzen du eta laguntzen du hiriguneak trinkoagoak izaten, ahalbidetzen duelako oinarritzako beharrak asetzeko joan-etorri handirik egin gabe edo garraio pribatua erabili gabe, eta, horri esker, berriz, modu orekatuan uztartzen ahal dira udalerriko espazioen erabilera desberdinak: bizitegiak, merkataritza, aisialdia eta zerbitzuak. Horrela, espazio publikoa bizkortzen da eta ikuspegi sozialetik hiri kohesionalagoak lortzen dira, zona horien andeatzea ekidi-

tearekin batera. Gainera, merkataritza eta bizigune eredu honek, hiri-periferietako merkataritza eta aisialdirako erabilera intentsiboa sustatzen duenak ez bezala, aukera ematen du hirigintza jasangarriagoa izan dadin, ingurumenaren gaineko inpaktu txikiagoarekin –mugikortasuna eta joan-etorriak murrizten direnez–, eta lagungarria da lurzorua eta lurraldearen erabilera zentzuzkoagoa egiteko.

Finean, hirietako jarduera ekonomikoa bultzatu eta sustatzeko arrazoiak mota askotakoak dira, eta ez dira mugatzen merkataritza eta ekonomiaren alderdi hutsetara. Aipatutako arrazoi guztiak, hots, hirigintza bereizgarri bat, hazkunde eredu eta hiri mugikortasuna jasangarriagoak eta ingurumenaren gaineko inpaktu txikiagokoak garatzea, hirien berezko nortasunari eustea baita kohesio soziala ere, interes publiko ageriko arrazoiak dira, eta ongi justifikatzen dute ordainketarako betebeharrak ezartzea sustapen ekonomikorako eremu baten inguruan ezarritako ekonomia-jardueren titularrei, haren aurrekontua finantzatzeko. Kasu honetan, ondare-prestazio publikoak ezartzeko, Konstituzio Auzitegiaren doktrinak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dira (besteak beste, urriaren 28ko 182/1997, abenduaren 13ko 233/1999 eta martxoaren 27ko 63/2 epailetan finkatutako doktrina).

Nafarroako Foru Komunitateak eskumena du udalei gaitz emateko, zergaz kanpoko ondare-prestazio publiko hau ezar dezaten, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikuluan 1. eta 3. apartatuetan jasotako eskumenak baliatuz eta abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsitako Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 48. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateari esleitzen baitio bere lurraldeko toki ogasunen gaineko eskumena.

V

Foru legeak honako egitura du: sei titulu, hiru xedapen gehigarri eta bi azken xedapen.

Atariko tituluan xedapen orokorrak biltzen dira, arauaren xedari eta aplikazio eremuari eta helburuei buruzkoak.

I. tituluan jasotzen da sustapen ekonomikorako eremuaren definizioa, haren izaera eta araubide juridikoa ezartzen dira eta helburu nagusiak azaltzen.

II. tituluan eremua eratzeko prozedura arautzen da, eta modu demokratikoan egiten dela bermatzeko tresnak ezartzen dira. Horrekin batera, sustapen ekonomikorako eremu bat eratzeko baimena emateko eskumena esleitzen da eta uda-

lak eta eremu berriak kasu guztietan izenpetu beharko duten hitzarmena arautzen da. Hitzarmen hori gobernantza formula berri hau antolatzen duen tresna da, eta haren eginkizun nabarmen-takoak dira, besteak beste, sustapen ekonomikorako eremuen jardun-eremua zedarritzea –sektore publikoari dagozkion eskumenak beretzat hartu gabe eta haren ordez aritu gabe– eta aldean arteko koordinaziorako tresna eraginkorra izatea. Era berean, ezartzen da posible izanen dela sustapen ekonomikorako eremuak eratzeko udal-mugarte bat baino gehiagoko esparru geografikoetan edo eskualde batean, eta horretarako prozeduraren berezitasunak aurreikusten dira.

III. tituluan arautzen dira sustapen ekonomikorako eremuen kudeaketa organoak eta haien estatutuak. Horrez gainera, aurreikusten da kontsultaforo bat sortzea, sustapen ekonomikorako eremu bat egoteak ukitzen dituen guztien parte-hartzea sustatzeko.

IV. tituluak sustapen ekonomikorako eremuen finantza baliabideak arautzen ditu, bereziki jarduketaren onura jasoko dutenek nahitaez ordaindu beharreko ekarpena, bai eta aurrekontua ere.

V. tituluaren eremuen indarraldiari eta balizko desgiteari buruzkoa da.

Azkenik, hiru xedapen gehigarri eta bi azken xedapen jasotzen dira testuan.

Lehen xedapen gehigarrian adierazten da administrazio publikoek, egoki iritziz gero, sustapen ekonomikorako eremuak sustatzeko eta haien berri berri zabaltzeko neurriak onesten ahalko dituztela.

Bigarren xedapen gehigarria gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeari buruzkoa da.

Hirugarren xedapen gehigarrian foru lege honekin bat egiten duten Agenda 2030eko helburuak jasotzen dira.

Azken xedapenetako lehenak ahalmena ematen die Nafarroako Gobernuari eta udalei foru lege hau erregelamenduz garatzeko. Azken xedapenetako bigarrenak zehazten du araua noiz sartuko den indarrean.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, foru lege hau egitean aintzat hartu dira erregulazio onaren printzipioak, artikulua horretan jasotzen direnak. Zehazki, beharrena eta eraginkortasunarena, propor-

tzionaltasunarena, segurtasun juridikoarena, bai eta gardentasunarena eta efizientziarena.

Azkenik, foru lege hau prestatzeko prozeduran aintzat hartu da gardentasunaren printzipioa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean jasotako moduan.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

Foru lege honen xedea da ahalbidetzea Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan sustapen ekonomikorako eremuak sor daitezela, ekonomia dinamizatzeko, ekonomia-jarduerak gizarte eta ingurumen aldetik jasangarriak izan daitezen laguntzeko, enpresen lehiakortasuna areagotzeko eta herritarrentzako ondasunen hornidura eta zerbitzuak hobetzeko.

2. artikulua. Arauaren helburuak.

Foru lege honen helburuak, besteak beste, honako hauek dira:

a) Jarduketa publiko-pribatuen garapena sustatzea, lagundu dezaten hiri eta landa inguru-neen erakarmena eta enpresen lehiakortasuna hobetzen eta enplegua sortzen.

b) Nafarroako udalerriek hirigintza arloan dituzten desafio berriei heltzea eta hiri deszentralizazioak dakartzan ingurumen arazoei aurre egitea.

c) Besteak beste, hirietako merkataritza-guneak, eremu turistikoak edo industrialdeak kudeatzeko moduan berrikuntza eta hobekuntza sustatzeko gai izanen diren lege tresnak garatzea.

d) Finantzaketa egonkorra eta nahikoa lortzea ahalbidetuko duen lege formula bat ezartzea, zona geografiko batean dauden ekonomia-jardueren titularrek eta ondasun higiezin okupatu gabeak jabetzan dituztenek –ondasun horiek etxebizitzetarako erabili ezin badira eta jarduerak hartzeko egokiak badira– nahitaez egin beharreko ekarpenen bidezkoa.

e) Lege tresna bat ezartzea, administrazio publikoek egin ditzaketen inbertsioen ordezkioa izanen ez dena, inbertsio gehigarriak egin daitezkeen tokiko ekonomia indartzeko eta, horrekin batera, enpresaburu eta profesionaleri ahots bateratua emateko.

f) Ekimen eta kudeaketa pribatuko birgaikuntza, berrikuntza eta berroneratze jarduketak faboratzea, udalekin elkarlanean.

g) Ikuspegi estrategiko bat bultzatzea eta toki interes desberdinen arteko lankidetzaren eremu bat ematea, horren baitan biltzeko ondasun higiezin jabeak, profesionalak, enpresaburuak, toki agintariak eta toki komunitateak.

I. TITULUA

Sustapen Ekonomikorako Eremuak

3. artikulua. Definizioa.

1. Sustapen ekonomikorako eremuak entitate pribatuak dira, udalek baimendutakoak, zona geografiko zedarritu eta jarraitu batean kokatutako ekonomia-jardueren titularrek eta okupatu gabeko ondasun higiezin jabeek osatutakoak –baldin eta higiezin horiek ezin badira etxebizitzetarako erabili eta bai, ordea, jarduerak ezartzeko–, eta zona zehatz horren erakarmena eta lehiakortasuna hobetzeko helburua dute, jarduerak eginez eta zerbitzuak emanez betiere udal zerbitzu eta jardueren osagarri.

2. Entitate horiek modu autonomoan kudeatzen dira eta finantza erantzukizun berekiarekin jarduten dute.

4. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Sustapen ekonomikorako eremuak entitate pribatuak dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridiko berekia dute; haien antolaketari eta funtzionamenduari dagokienez, foru lege honetan eta hau garatzen duten arauetan xedatutakoak araututa daude, bai eta bakoitzaren estatutuek eta, osagarri gisa, zuzenbide pribatuko arauak ere.

2. Sustapen ekonomikorako eremuek ez dute ugazaben ordezkaritza eginkizunik beteko, eta ez dira enpresaburuaren elkarrean ordezkari arituko ordezkaritza eta kontsulta eginkizunetan.

5. artikulua. Helburuak.

1. Sustapen ekonomikorako eremuak eratuko dira eratzen diren zonaren garapena, erakarmena eta lehiakortasun ekonomikoa sustatzeko helburuarekin. Bereziki, helburu hauek izan ditzakete, besteak beste:

a) Hiri-berroneratzea, zedarritutako eremuan dauden turismo, merkataritza edo industria arloko ekonomia-jardueren hobekuntzaren, dinamizazioaren eta garapenaren bidez.

b) Inbertsioak erakartzea, merkataritzako mix-a hobetzeko eta hutsik dauden lokalen kopurua gutxitzeko.

c) Ekitaldiak eta ikuskizunak antolatzea, eskaera erakartzeko, zona dinamizatzeko eta eremuaren marka-irudia sortzeko.

d) Zonako ingurumen kalitatea, mugikortasuna eta jasagarritasuna hobetzea.

e) Gizarte erantzukizun korporatiboa sendotzen laguntzen duten jarduerak egitea.

f) Emakumeen lan autonomoaren eta ikusgarritasunaren pizgarri diren jarduerak egitea.

g) Hiri-paisaiaren itxura hobetzea, garbiketa, argiztatze, seinalizazio, apainketa edo altzarien inguruko jarduketa gehigarriak eginez.

h) Zonako espazio publikoen eta establezimendu, lokal eta negozioen segurtasuna, genero ikuspegia kontuan hartuta.

i) Kideei laguntza eta etengabeko prestakuntza ematea jarduerak betetzeko.

j) Kideentzako zerbitzuen kudeaketa partekatu, hala nola logistika, salgaien banaketa, hornitzaileekiko harremanak edo digitalizazioa.

k) Zona biziberritzen eta garatzen laguntzen duen beste edozein helburu.

2. Sustapen ekonomikorako eremuek garatutako jarduketak, betiere, administrazio publikoek betetzen dituztenen osagarri edo gehigarri izanen dira eta, beraz, haiekin batera eginen dira, baina inolaz ere ordeztu gabe; beren lurralde esparruan kokatutako dauden ekonomia-jardueren edo ondasun higiezinaren titularrei bideratuta egonen dira ekarpenak egiteko betebeharra izanen dute ezarria.

II. TITULUA

Halako eremuak eratzeko prozedura

6. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremua eratzeko ekimena.

1. Sustapen ekonomikorako eremu bat eratzeko ekimena zonako ekonomia-jardueren titularrei dagokie, edo okupatu gabeko ondasun higiezinaren jabeei, baldin eta higiezin horiek ezin badira etxebizitzetarako erabili eta bai, ordea, jarduerak ezartzeko. Ekimena bultzatzen duten guztiek parte hartuko dute sustapen batzordean.

2. Ekimena udalari zuzendutako eskaera baten bidez formalizatu beharko da, gutxienez agiri hauek ere erantsita:

a) Sustapen batzordeko kideen identifikazioa, bai eta jakinarazpenak egiteko haien helbidea ere.

b) Zona geografikoaren mugaketa zehatzaren eta bideragarritasun ekonomikoaren justifikazio memoria.

c) Jarduketa planaren hasierako proposamena, indarraldirako aurreikusitako jardueren deskribapena eta aurrekontu proiektu zehaztu bat barne, bien bideragarritasuna justifikatzen duen memoria batekin batera.

d) Entitatearen estatutuen hasierako proposamena.

e) Udalarekiko hitzarmenaren hasierako proposamena.

Erregelamenduz zehazten ahalko da aurreko apartatuan aipatzen diren agirien edukia eta beste batzuk gehitzen, beharrezkoa balitz. Toki entitateak tasa bat ezartzen ahalko du eskaera tramitatzeari eta sustapen batzordeari sustapen ekonomikorako eremua eratzeko behar den informazioa emateagatik.

3. Hasteko eskaerak ez baditu betetzen artikuluhonon 2. apartatuan eskatzen diren baldintzak, udalak eskatuko dio sustapen batzordeari zuzen dezala akatsa edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala hamar egun baliouduneko epean, adieraziz hala egin ezean ulertuko dela atzera egin duela eskaeran eta prozedura amaitutzat emanen dela. Betiere, aurretik ebazpena emanen da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

4. Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, eskaera aurkezten denetik hilabeteko epean udalak erabaki hauetako bat hartuko du:

a) Eskaera tramitera ez onartzea eta, beraz, espedientea artxibatzea arrazoi hauetako batengatik: ekimenak ez duelako behar besteko kaudimen ekonomiko, finantzario edo teknikorik; zona geografiko berean, edo zati batean, sustapen ekonomikorako beste eremu bat dagoelako edo proposatu delako, eta haren jarduketa plana bat baldin badator jardueretan eta helburuetan, halako moduan non ikusten ahal den helburua antzekoa dela; egokitasun edo komenigarritasuna dela eta, behar bezala arrazoituta.

b) Tramitera onartzea eta, beraz, sustapen ekonomikorako eremua eratzeko prozedurari jarraipena ematea, hurrengo artikuluetan ezarritakoarekin bat.

5. Eskaera aurkezten denetik hilabeteko gehieneko epea iraganik ebatzi gabe eta berariazko

ebazpena jakinarazi gabe, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

6. Sustapen ekonomikorako eremu bat eratzeko prozeduraz ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa da.

7. artikulua. Eremuak eratzeko prozedura.

1. Sustapen ekonomikorako eremua eratzeko eskaera tramitera onartzen den egunetik hilabeteko epean, udalak daukan informazioa emanen dio sustapen batzordeari, identifikatzeko, zonan dauden ekonomia-jardueren titularrak eta ondasun higiezin okupatu gabeen jabeak, baldin eta higiezin horiek ekonomia-jarduerak jartzeko egokiak badira eta etxebizitzarako erabili ezin badira.

2. Sustapen batzordeak, gehienez ere hiru hilabeteko epean informazio hori jasotzen denetik, frogatu beharko du ekimenak berariazko babes hauek dituela, horren barne dela adostasuna adieraztea eraketarekin, proposatutako jarduketa planarekin eta aurrekontuari ekarpena egiteko betebeharrarekin:

– 50 arteko ekonomia-jarduera edo ondasun higiezin dituzten eremuetan, aipatutako jardueren edo ondasunen titularren erdien babesa gutxienez ere.

– 50 eta 100 arteko ekonomia-jarduera edo ondasun higiezin dituzten eremuetan, aipatutako jardueren edo ondasunen titularren % 35en babesa gutxienez ere.

– 101 eta 500 arteko ekonomia-jarduera edo ondasun higiezin dituzten eremuetan, aipatutako jardueren edo ondasunen titularren % 25en babesa gutxienez ere.

– 500 ekonomia-jarduera edo ondasun higiezin baino gehiago dituzten eremuetan, aipatutako jardueren edo ondasunen titularren % 15en babesa gutxienez ere.

3. Hamar egun balioduneko epean, babes hori frogatzen denetik hasita, udalak lantalde bat sortuko du, udal ordezkariak eta sustapen batzordeak izendatutakoek osatua, bai eta beste administrazio publiko batzuetako ordezkariak ere, haien eskumenak ukituta baldin badaude.

Lantalde horrek proposamen bat prestatu beharko du, sustapen ekonomikorako eremuaren jarduketa plana eta aurrekontua bilduko dituena. Lantaldeak, halaber, udalak eta sustapen ekonomikorako eremuak izenpetu beharreko lankidetzak hitzarmenaren proposamena prestatu beharko du, eta bertan zehaztuko dira aldeetako bakoitzak hartzen dituen konpromisoak eta foru lege honen 10. artikuluan zehazten diren gai guztiak.

Agiri horiek sustapen ekonomikorako eremuko sustapen batzordeak onetsi beharko ditu. Onespen hori ez bada gertatzen lantaldea lanean hasi eta hiru hilabeteko epean, udalak ezetsi egingen du eskaera.

4. Lantaldearen proposamena behin onetsita, udalak eskatuko die udal zerbitzu eskudunei nahitaezko txostena eman dezatela hilabeteko epean, gai hauei buruzko iritzia jasota:

a) Jarduketa planean jasotako ekintzak interes orokorrekin bat datozen, begiratuta aurreikusitako jarduketa pribatuek ez ditzatela eskumen publikoak beretzat har, bai eta haien bideragarritasuna eta proiektuko zona geografikoarena ere.

Txostenean egokitasun arrazoiak jasotzen ahalko dira, sustapen ekonomikorako eremua onestea ez dela komeni justifikatzen dutenak.

b) Jarduketa plana betetzeko aurreikusten den aurrekontuaren zentzuzkotasuna eta bideragarritasuna, baita berekin ekarriko dituen nahitaezko ekarpenena ere.

c) Proposatutako hitzarmenaren legezkotasuna.

6. Udalak, txostenak eskuratuta eta udal autonomiaren printzipioarekin bat, libreki eta arrazoiak emanez erabakiko du sustapen ekonomikorako eremuaren eraketa onetsi edo ezestea.

7. Udal ordenantza baten bidez ezarriko dira zentsuaren eraketa, eman behar zaion publizitatea eta haren kontrako erreklamazioak aurkeztu eta ebazteko prozedura.

8. Hogeita hamar egun balioduneko gehieneko epean, aldeko nahitaezko txostena eman eta bihar ramunetik hasita, udalaren osoko bilkurari dagokio behin-behinean onesteko erabakia hartzea, toki araubideko araudi aplikagarrian ezarritako prozedurarekin bat; ondoren, prozedurarako dei egingen da, proposamena berrets dezaten sustapen ekonomikorako eremuan sartuta dauden ekonomia-jardueren titularrek eta ondasun higiezin okupatu gabeen jabeek, (ondasun higiezin horiek ekonomia-jarduerak hartzeko egoki badira baina etxebizitzarako erabili ezin badira).

8. artikulua. Berresteko prozesua.

1. Udalak jendaurrean jarriko du, gutxienez ere hogeita hamar egun balioduneko epean, behin-behineko onetsitako proposamena, hau da, jarduketa plana, sustapen ekonomikorako eremuaren aurrekontua bere indarraldi guztirako eta hitzarmena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta bere egoitza elektronikoan argitaratu ondoren, berriaz adierazita berresteko prozesuan parte hartzen dutenek eskubidea dutela sustapen eko-

nomikorako eremuaren eraketari aurka egiteko. Udalak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu bermatzeko jendaurrean jartzen den dokumentazioaren berri ahalik eta gehien zabal dadin jendartean, bitarteko elektronikoak eta beste hedabide batzuk erabiliz.

Horrez gain, udalak ordaintzeko betebeharra dutenei jakinaraziko die jendaurrean jarritako dokumentazioa. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera eginen da jakinarazpen hori.

2. Berresteko prozesuan parte hartzen ahalko dute, sustapen ekonomikorako eremua eratzen bada, haren aurrekontua finantzatzeko ekarpena ordaintzera beharturik daudenek, foru lege honen 21. artikuluan 1. apartatuarekin bat. Horiei guztiei, sustapen batzordeak jakinarazi beharko die jendaurreko informazioaren epea ireki dela, epe hori hasi baino hamabost egun baliodun lehenago gutxienez.

Berresteko prozesuan parte har dezaketenek udalari eskatzen ahalko diote banakako informazioa eman diezaiela ordaindu beharreko ekarpenaren zenbatekoaz, halakorik bada.

3. Berresteko prozesuan parte har dezaketenen % 25ek, beren nahitaezko ekarpenekin entitatearen aurrekontuaren % 40 ordaindu behar dutenek, deklaritzen badute eremua eratzearen kontra daudela, udalak ezetsi eginen du sustapen batzordearen eskaera.

Kontrako jarrerak ez badu portzentaje hori biltzen, sustapen ekonomikorako eremua eratzeke proposamena onartu eginen da.

9. artikulua. Eraketarako baimena.

1. Udalak egiaztatu ondoren sustapen ekonomikorako eremua eratzeke proposamena modu egokian berretsi dela aurreko artikuluan adierazitako baldintzetan, berresteko prozesua jendaurrean egon eta amaitzeko tramitea bukatzen denetik hogeita hamar egun balioduneko epean gehienez, entitatea eratzeke baimena emanen du udalak, osoko bilkurak aldeko erabakia hartuta toki araubide aplikagarriko araudian ezarritako prozedurarekin bat.

Osoko bilkurak eratzeari ezetza ematen badio, ulertuko da prozedura bukatu dela sustapen ekonomikorako eremua eratzea ukatuta.

2. Osoko bilkurak erabakitzen badu sustapen ekonomikorako eremua eratzea, biltzar eratzaile bat eginen da. Horretarako, sustapen batzordeak modu frogagarrian, egiaztatuta eta banaka jakina-

razi beharko die zein egun eta tokitan eginen den eraketa ekitaldia foru lege honen 21. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako ekarpena ordaintzeko betebeharra dutenei, aditzera emanaz, orobat, entitateko kide izateko eskubidea dutela, hala nahi badute.

Entitatea eratzeke erabakia bi hilabeteko epean formalizatuko da osoko bilkurak hartutako aldeko erabakia jakinarazten denetik, biltzar eratzaileak izendatutako pertsonak egiletsitako eskritura publikoaren bidez; horretan beti jaso beharko dira datu hauek:

a) Sustapen ekonomikorako eremuaren izena eta helbidea.

b) Sustapen ekonomikorako eremua eratzen duten kideen identitatea, hau da, entitatearen aurrekontua finantzatzeko ekarpena ordaintzera behartuta dauden eta eremuko kide izateko borondatea adierazten dutenena.

c) Sustapen ekonomikorako eremu bat eratzeke borondatearen berrespena.

d) Entitatearen estatutuak, 19. artikuluko preskripzioekin bat etorriko den edukiarekin.

e) Entitatearen gobernuaren eta ordezkari-tzaren hasierako eta behin-behineko arduraren izendapena.

f) Eraketa-ondarea.

g) Eraketa akta noiz eta non egilesten den, eta e) letran aipatzen direnen sinadura.

10. artikulua. Hitzarmena.

1. Behin eratu ondoren sustapen ekonomikorako eremua, udalak entitatearekiko lankidetzaren hitzarmena formalizatuko du hogeita hamar egun balioduneko gehieneko epean.

2. Udalaren eta sustapen ekonomikorako eremuaren artean izenpetutako hitzarmena lankidetzaren hitzarmen bat da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan 2. apartatuko c) letran jasotako baldintzetan.

3. Gutxienez ere, lege horren 49. artikuluan aipatzen diren gaiak jasoko ditu, eta alderdi hauek zehaztuko:

a) Hitzarmena izenpetzen dutenen identifikazioa eta haien ordezkari jarduten duten pertsona fisikoena, sexuaren arabera desagregatutako datuekin.

b) Sustapen ekonomikorako eremuak, hitzemandakoaren arabera, bete beharreko jarduketak, bai eta udalarekiko lankidetzarako modalitate-

ak, haien denbora banaketa urtekoetan zehaztuta, eta aurrekontuko egozpena ere.

c) Udalak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik bada.

d) Udalak sustapen ekonomikorako eremuaren organoetan parte hartzeko modua.

e) Udalak sustapen ekonomikorako eremuaren erabakien, urteko kontuen eta egindako jarduketan gainean kontrola izateko formulak, horrek galarazi gabe toki araubideko lege aplikagarriek udalari esleitzen dizkieten eskumenak.

f) Bi aldeek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak, eta hala bada-gokio, ez-betetze horrek ekar lezakeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

g) Hitzarmena betetzearen eta bi aldeek bere gain hartutako konpromisoen gaineko jarraipen, zaintza eta kontrolerako tresnak, zeinen barruan ebartziko baitira interpretazioaz eta betetzeaz sor daitezkeen arazoak, horrek galarazi gabe administrazioarekiko auzien ordenako organo jurisdikzionalen eskumena auziez arduratzeko.

h) Hitzarmena aldatzeko araubidea.

i) Hitzarmena eta sustapen ekonomikorako eremua azkentzeko arrazoiak eta ondorioak entitatearen likidazioari eta abian diren jarduketan amaierari dagokienez.

j) Hitzarmenaren indarraldia ez da bost urtetik gorakoa izanen.

2. Hitzarmenak eranskin hauek izanen ditu:

a) Sustapen ekonomikorako eremua eratzea onesten duen udal erabakia. Udal-mugarte batean baino gehiagotan hedatzen diren sustapen ekonomikorako eremuen kasuan, onespeneraren udal erabaki guztiak, ukitutako udal guztiek hartutakoak.

b) Sustapen ekonomikorako eremuaren eraketa akta, entitatearen estatutuekin batera.

c) Sustapen ekonomikorako eremuaren jarduketa plana.

d) Sustapen ekonomikorako eremuaren aurrekontua bere indarraldi baimendu osorako.

11. artikulua. Publizitatea.

1. Baimena ematen duen udal erabakia eta sinatutako lankidetzaren hitzarmena jakinaraziko zaizkie sustapen ekonomikorako eremua finantzatzeko nahitaezko ekarpena ordaintzeko betebeharrak dutenei. Gainera, agiri horiek sei hilabetez egonen dira argitaratuta udalaren atari elektronikoan, eta interesdun guztien eskura egonen dira

beti, eraturako entitatearen egoitzan eta udal bulegoetan.

Jakinarazpenean berriaz adieraziko da ekarpena ordaintzera behartuta daudenean sustapen ekonomikorako eremuko kide izateko eskubidea dutela baina ez betebeharra.

2. Gardentasuna bermatzearen, sustapen ekonomikorako eremuak bere atari elektronikoan emanen ditu argitara honakoak: entitatearen urteko aurrekontuak, jardueren urteko memoria eta kudeaketa organoen osaera; horrek ez du galarazten erregelamenduz beste betebeharrak batzuk ere gehitzea.

3. Erregelamenduz sortzen ahalko da Nafarroako sustapen ekonomikorako eremuen erregistro bat, haien antolaketari, prozedurari, funtzionamenduari eta publizitateari buruzko alderdiak arautuko dituena.

4. Dokumentazio, jakinarazpen, erregistro eta antzeko guztiak egitean kontuan hartuko da hizkera inklusiboa erabili beharra, bai eta genero estereotipoak eta rola errepikatzen ez dituzten irudien ere.

12. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremu bat udalez gaindiko zona geografikoetan eratzeko prozedura.

1. Sustapen ekonomikorako eremua eratzeko aurreikusi den zona geografikoan udalerririk bat baino gehiago baldin badago, sustapen batzordeak populazio handiena duen udalean aurkeztuko du eskaera, eta udal horrek koordinatuko du gainerakoekin nola hartu foru lege honen 6. artikuluan arabera prozedura hasi aurretik egin beharreko jarduketak.

2. Foru lege honen 7. artikuluan aurreikusitako lantaldean, ukitutako udal guztien ordezkariak egonen dira, edo, bestela, eskualdekoak. Lantaldeak aurkeztutako proposamena (jarduketa plana, sustapen ekonomikorako eremuaren aurrekontua eta lankidetzaren hitzarmena) udal guztietako osoko bilkuretan aztertuko da, baimena emateko. Udal guztietako osoko bilkurek hartu beharko dute sustapen ekonomikorako eremua eratzearen aldeko erabakia. Haietako batek hala egiten ez badu, sustapen batzordeak berriz aurkeztu ahalko du eskaera aldeko erabakia onartu duten udaletan, baina sustapen ekonomikorako eremutik kanpo utzita kontrako erabakia hartu duen udalari dagokion zona geografikoa. Kasu guztietan, hitzarmen bakar bat izenpetuko da ukitutako toki entitateen eta entitate pribatuaren artean.

3. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean aurrei-

kusitako eskualdeak eratu ondoren, artikuluko honen 1. apartatua populazio handiena duen udalari esleitzen zaizkion koordinazio lanak bere gain hartuko ditu ukitutako udal guztiak biltzen dituen eskualdeak.

III. TITULUA

Antolaketa eta funtzionamendua

13. artikulua. Organoak.

1. Sustapen ekonomikorako eremua organo hauek kudeatuko dute:

- a) Batzar Orokorra.
- b) Zuzendaritza Batzordea.
- c) Kudeatzailea.

2. Estatuetan edo Batzar Orokorrek gehien-gez erabakita, gobernu organo gehigarriak ezar-tzen ahalko dira.

3. Sustapen ekonomikorako eremuko organo-ek printzipio demokratikoa errespetatuz hartuko dituzte erabakiak.

14. artikulua. Batzar Orokorra.

1. Batzar Orokorra entitatearen gobernu orga-no goren da, eta haren kide dira honako hauek:

a) foru lege honen 21. artikuluko lehen aparta-tuan aurreikusten diren ekarpenak ordaintzeko betebeharrak dutenak, beren borondatez entitateko kide izatea erabakitzen dutenak. Kide bakoitzak, 23. artikuluan adierazitakoaren arabera, sustapen ekonomikorako eremuan dagokion partaidetza kopurua adina boto izanen ditu.

b) Ukitutako administrazio publikoen ordezkariak, hitzarmenean ezartzen den kopuruan eta ahalmenekin.

2. Batzar Orokorren bilkurak arruntak eta bereziak izanen dira. Bilkura arrunta urtean behin eginen da, ekitaldia itxi eta ondoko lau hilabeteko epean, entitatearen aurrekontuak eta urteko kon-tuak onesteko; bilkura bereziak, berriz, eginen dira egoera dela-eta komeni denean, lehendakariak edo Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duene-an edo entitateko kideen hamarretik batek idatziz proposatzen duenean.

3. Entitatearen estatuetan zehaztuko dira ba-tzarrak egiteko arauak, deialdia egiteko epeak eta publizitatea, erabakiak hartzeko behar diren gehiengoak eta haren funtzionamendu normalera-ko argibide guztiak.

4. Batzar Orokorrek honako ahalmen hauek izanen ditu:

a) Zuzendaritza Batzordeko kideak hautatzea edo kargutik kentzea.

b) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa ones-tea.

c) Aurrekontuak eta urteko kontuak aztertu eta onestea.

d) Estatutuak aldatzea.

e) Ondasunak erabiltzea edo besterentzea.

f) Entitatea berritzeko proposamena onestea.

g) Entitatea desegitea.

h) Estatuetan edo foru lege hau garatzeko arauetan emandako beste edozein eskumen.

15. artikulua. Zuzendaritza Batzordea.

Zuzendaritza Batzordea kide anitzeko gobernu organoa da eta berari dagokio sustapen ekonomi-korako eremuaren kudeaketa. Estatuetan ezarri-ko da haren osaera, baina beti izanen ditu hona-koak:

a) lehendakari bat eta idazkari bat.

b) Batzordekideak, estatuetan ezartzen den kopuruan, nahitaezko ekarpenak ordaintzeko betebeharrak dutenak ordezkatzeko.

c) Ukitutako administrazio publikoen ordezkari bat gutxienez, hitzarmenean ezartzen denaren arabera, interes publikoak zainduko dituenak.

2. Zuzendaritza Batzordeko kargu guztiak ordainik gabekoak izanen dira, horrek galarazi gabe eginkizunak betetzeak ekar ditzakeen gas-tuak konpentsatzea. Batzar Orokorrek izendatu eta kargutik kenduko ditu, eta agintaldiaren irau-pena estatuetan ezarriko da.

3. Zuzendaritza Batzordea lehendakariak erabakitzen duen guztietan bilduko da, bai eta kideen herenaren ekimenez edo hala eskatuta ere. Bilkura osatuta egonen da kideen erdiak gehi bat bertaraten direnean eta, nahitaez, lehendakaria eta idazkaria bertan direla. Batzordearen erabakiak baliozkoak izateko, botoen gehiengoaz hartu beharko dira, non estatuetan edo hitzarmenean ez diren gehiengo osoak ezartzen erabaki zehatz batzuk hartzeko. Bozketan berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoa kalitatekoa izanen da.

4. Zuzendaritza Batzordearen ahalmenek sus-tapen ekonomikorako eremuaren helburuei loturi-ko egintza guztiak hartuko dituzte, oro har, non ez den behar, haren estatuten arabera, Batzorde Orokorren berriazko baimena.

Zuzendaritza Batzordearen ahalmen partikula-rrak dira:

a) Entitatearen jarduera sozialak gidatu eta kudeaketa ekonomiko eta administratiboaz ardura-tzea, eta zer kontratu eta egintza behar diren erabakitzea.

b) Batzar Orokorraren erabakiak betearaztea.

c) Entitatearen kudeatzailea izendatzea.

d) Aurrekontuak eta urteko kontuak egin eta Batzar Orokorrari aurkeztea, onets ditzan.

e) Beste edozein ahalmen, Batzar Orokorraren eskumen eskusiboa ez dena.

16. artikulua. Lehendakaria.

1. Lehendakaria zuzendaritza eta ordezkari-tza organoa da, eta Batzar Orokorrak aukeratuko du kideen artean, sufragio unibertsalaren bidez sustapen ekonomikorako eremuan dauden ekonomia-jardueren titularren artean, eta agintaldiaren iraupena estatutueta ezarriko da.

2. Honakoak dira lehendakariaren eskudantziak:

a) Sustapen ekonomikorako eremua lege ordezkatzea mota guztietako erakunde publiko edo pribatuaren aurrean.

b) Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak egiten dituzten bilkura guztietarako deialdia egitea, eta haiek zuzendu eta bukatutzat ematea, bai eta bietan eztabaidak bideratzea ere.

c) Ordainketak agintzea eta bere sinadurarekin baimentzea agiriak, aktak eta posta-agiriak.

d) Entitatearen funtzionamendu egokirako komeni den edo jarduerak betetzeko beharrezkoa edo komenigarria den presako neurri oro hartzea, horrek galarazi gabe geroago horren berri ematea Zuzendaritza Batzordeari.

17. artikulua. Kudeatzailea.

1. Kudeatzailea Batzarraren eta Zuzendaritza Batzordearen erabakiak betearazteaz arduratzen den organoa da, eta entitatearen administrazio arruntaren eginkizunak betetzen ditu.

2. Kudeatzaile lanak pertsona fisiko nahiz juridiko baten esku uzten ahalko dira, profesionaltasun eta esperientzia frogatuak baditu, betiere.

3. Kudeatzailea Batzar Orokorraren eta Zuzendaritza Batzordearen bilkuretan egonen da, hitzarekin baina botorik gabe.

4. Kudeatzaileak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Entitatearen urteko aurrekontua eta kontuak egitea.

b) Entitatearen kudeaketari buruzko urteko memoria prestatzea.

c) Jarduketa plana implementatzea eta sustapen ekonomikorako eremuaren intereseko jarduketa plan eta programak proposatzea.

d) Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak bere gain uzten dituen edo eskuordetzen dizkion gainerako lan eta eginkizunak.

18. artikulua. Parte hartzeko kontsulta-foroa.

Sustapen ekonomikorako eremuak kontsulta-foro bat eratu beharko du eremuaren jarduketek eta kudeaketak ukitzen dituzten guztien parte-hartzea sustatzeko. Haren funtzionamendua eta osaera hitzarmenean garatuko dira, eta bertan ordezkari-tuta egonen dira kudeatutako eremuko langileak, enpresak, bertan ondasun higiezinak dituztenak eta bizi-lagunak.

19. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremuaren estatutuak.

Sustapen ekonomikorako eremuaren estatutuak foru lege honetan xedatutakora egokitu beharko dira, eta gutxienez honako alderdi hauek jaso beharko dituzte:

a) Entitatearen izena, bertan adierazita, nahitaez, "sustapen ekonomikorako eremua" hitzak edo "SEE" siglak, entitate mota honetarako eskusiboak izanen baitira.

b) Helburu soziala, jarduketaren lurralde-esparruaren garapena, erakarmena eta lehiakortasun ekonomikoaren sustapena ere jasota.

c) Egoitza soziala.

d) Iraupena.

e) Jarduteko lurralde esparrua.

f) Sustapen ekonomikorako eremuaren gobernu organoen araubidea, eta bertan zehaztu beharko dira osaera, eginkizunak, iraupena, jarduteko prozedurak, erabakietan behar diren gehiengoak, boto eskubidea eta bazkideen bermeak.

g) Entitatearen baliabide ekonomikoen aipamena.

h) Entitateko kideak onartu, baja eman eta kanporatzeko baldintzak, helburuak eta prozedura.

i) Estatutuak aldatzeko prozedura.

j) Sustapen ekonomikorako eremua desegin eta likidatzeko arrazoiak eta prozedura, bai eta entitatea desegiten bada geratzen den ondarearen erabilerarako aurreikuspena ere.

k) Foru lege honek edo garatzen duen araudiak ezartzen duen beste edozein beharkizun.

2. Lehenbiziko estatutuak eraketa batzarrean onetsi beharko dira nahitaez, foru lege honen 9. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoan.

3. Estatutuak barne araubideko erregelamenduen bidez garatzen ahalko dira.

IV. TITULUA Finantzaketa

20. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremuen baliabide ekonomikoak.

1. Sustapen ekonomikorako eremuek baliabide hauek izanen dituzte nagusiki:

a) foru lege honen 21. artikulutik 26. artikulura bitartekoetan arautzen diren nahitaezko ekarpenak.

b) Administrazio publikoen dirulaguntzak eta laguntza publikoak.

c) Borondatezko ekarpenak eta dohaintzak.

d) Sustapen ekonomikorako eremua finantzatzeko ekarpenak ordaindu behar dituztenei edo hartan beren borondatez sartzan diren eta finantzaketarako ekarpen bat egiten dutenei ez beste inori ematen dizkien zerbitzuek sortutako etekinak.

e) Beren ondarea ustiatzeak sortutako etekinak.

2. Aurreko apartatuan jasotako baliabideetatik datozen diru-sarrerak erabili beharko dira eremuek berezko dituzten jarduerak betetzean egiten dituzten gastuak ordaintzeko. Debekaturik dago horiek kideen artean banatzea.

3. Aurreko apartatuko a) letran aipatzen diren ekarpenek eragindako diru-sarrerekin ordaindu beharko da, gutxienez ere, sustapen ekonomikorako eremuaren indarraldi osorako aurrekontuan aurreikusi diren gastu guztien % 70.

4. Sustapen ekonomikorako eremuak ekarpen horietatik datozen diru-sarrerak gainerako diru-sarreretatik bereizirik kontabilizatu eta kudeatu beharko ditu. Zenbateko horiek, SEEaren gainerako diru-sarrerak bezala, erabili beharko dira nahitaez sustapen ekonomikorako eremu bakoitzaren jarduketa planean ezarritako helburuetarako eta funtzionamendu gastuetarako, udalarekin izenpetutako hitzarmenean jasotzen den aurrekontuaren arabera.

5. Sustapen ekonomikorako eremuek ondare berekia izan dezakete.

21. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremuak finantzatzeko nahitaezko ekarpenak.

1. Sustapen ekonomikorako eremu baten eraketa baimentzen duten udalek ezarriko dute betebeharrak, haren eremu geografikoan, lokal zehatz

batean, betetzen diren ekonomia-jardueren titular guztiek aurrekontuaren finantzaketan laguntzeko betebeharrak alegia. Eremu horretan dauden eta ekonomia-jarduerak hartzeko egoki diren ondasun higiezin kasuan, horiek okupatu gabe baldin badaude eta etxebizitzarako erabili ezin badira, ondasun horien jabeek ere ordaindu beharko dute ekarpena.

Nahitaezko ekarpenaren ordainarazpena ordenantza bidez onartu beharko da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko I. kapituluko 3. atalean ezarritako baldintzetan.

2. Ekarpenera hori zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoa da, Espainiako Konstituzioaren 31.3 artikuluekin eta Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita hamargarren xedapen gehigarriarekin bat.

3. Sustapen ekonomikorako eremuaren finantzaketarako ekarpen horiek egiteko betebeharrak ez dakar berez sustapen ekonomikorako eremuko kide izatea. Ekarpenera ordaintzeko betebeharrak izan eta sustapen ekonomikorako eremuko kide izan nahi dutenek alta formalizatu beharko dute, dela sustapen ekonomikorako eremua eratzen den unean, 9. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoan, dela ondoren, estatutuetan ezarritako moduan.

22. artikulua. Salbuespenak.

Nahitaezko ekarpena ordaintzetik salbuetsirik daude ekonomia-jardueren gaineko zergatik salbuetsirik daudenak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150. artikuluko a), b), c), d), e) eta f) letretan ezarritako baldintzetan.

23. artikulua. Ekarpenera ordaintzeko betebeharrak dutenak.

1. Ekarpenera ordaindu behar dute pertsona fisiko nahiz juridikoek, jaraunspen jasogabeek, ondasun-erkidegoek eta bestelako erakundeek baldin, nortasun juridikorik izan gabe, unitate ekonomikoa edo ondare banandua badira eta sustapen ekonomikorako eremuaren jarduketan onura bereziki jasotzen badute.

Onura bereziki jasotzen dutenak pertsona edo entitate hauek dira:

a) Sustapen ekonomikorako eremu baten zona geografikoan dagoen lokal zehatz batean ekonomia-jarduerak bat betetzen dutenak, higiezinaren jabeak izan nahiz ez.

b) Eremu horretan dauden, ekonomia-jarduerak hartzeko egoki diren eta etxebizitzarako erabili ezin diren higiezin okupatu gabeen jabetza dutenak.

2. Ordaintzeko betebeharra duen pertsona bakoitzak partaidetza kopuru bat izanen du sustapen ekonomikorako eremuan, eta hura kalkulatu da kontuan hartuz ekonomia-jarduera betetzeko erabiltzen dituen edo jabetzan dituen ondasun higiezinak, eremuaren lurraldean daudenean, katastroaren arabera duten azalera eraikia, eskala honi jarraituta, betiere:

AZALERA	PARTAIDETZAK/BOTOAK
$A < 300 \text{ m}^2$	1
$300 \text{ m}^2 < S < 500 \text{ m}^2$	1,5
$500 \text{ m}^2 < S < 800 \text{ m}^2$	2
$800 \text{ m}^2 < S < 1.300 \text{ m}^2$	2,5
$1.300 \text{ m}^2 < A < 1.800 \text{ m}^2$	3
$1.800 \text{ m}^2 < A < 3.000 \text{ m}^2$	3,5
$3.000 \text{ m}^2 < S < 5.000 \text{ m}^2$	4
$5.000 \text{ m}^2 < S < 10.000 \text{ m}^2$	4,5
$S > 10.000 \text{ m}^2$	5

3. Azaleraren kalkulurako ez da kontuan hartuko aparkalekuetarako erabilitakoa.

4. Nafarroako Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legean xedatutako arekin bat, izaera kolektiboa duten eta banakako 50 establezimendu baino gehiago dituzten establezimenduek, unitate bat bezala kudeatzen badira, foru lege honen ondorioetarako izanen duten tratamendua katastroaren arabera 10.000 m² baino gehiagoko azalera eraikia duten ondasun higiezinena izanen da, eta beraz 5 partaidetza egokituko zaizkie.

5. Ekonomia-jardueraren titularrak edo okupatu gabeko lokal baten jabeak bat baino gehiago direnean, denek izanen dute ekarpena ordaintzeko betebeharrak solidarioa.

6. Ekonomia-jarduera baten titularrak establezimendu bat baino gehiago baldin badu, establezimendu bakoitzeko ordaindu beharko du ekarpena, jarduera bererako erabiltzen badira ere edo enpresa unitate bakarra osatzen badute ere.

7. Jarduerari uzteagatik baja ematen bada, titularra aldatzen bada, jardueran alta ematen bada, edo lokala okupatzen edo uzten bada, jardueraren titular berria edo okupatu gabeko higiezinaren jabetza duena subrogatu egingen da aurrekoaren egoeran, ekarpena ordaintzeko betebeharra duenaren tokian alegia, urte naturala bukatu arte.

8. Foru lege honen ondorioetarako, ekonomia-jarduerak dira lokal zehatz batean betetzen direnak eta ekonomia-jardueren gaineko zerga ordain-

du behar dutenak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritako baldintzetan.

24. artikulua. Kuantifikazioa.

1. Partaidetza bakoitzeko, nahitaezko ekarpenen zenbatekoa honakoa izanen da: eremuak bere indarraldi osorako duen aurrekontu osoa, ekarpen horien bidez estali beharrekoa, eta erre-serba funtsaren zenbatekoa batzearen emaitza zati sustapen ekonomikorako eremua osatzen duten partaidetzen kopurua eginda ateratzen den emaitza.

2. Titular bakoitzak ordaindu beharrekoa izanen da nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa bider hari dagokion partaidetza kopurua eginda ateratzen den zenbatekoa. Zenbateko horren gainean aplikatuko dira, kasua bada, hurrengo apartatuan jasotzen diren koefiziente zuzentzaileak edo 25. artikuluan aurreikusitako hobariak.

3. Koefiziente zuzentzaile edo hobari horiek aplikatzearen ondorioz diru-sarrerak gutxitzen badira, hainbeste non ez duten egiten 1. apartatuan aipatutako baturaren emaitza, gutxitze hori adinako zenbateko bat hainbanatuko da hobaririk gabeko edo koefizienteen bidez zuzendu gabeko partaidetza guztien artean, ekarpenen zenbatekoa handitzeko xedearekin.

4. Ekarpenaren kalkulurako, udalek, hitzarmenean adostutakoaren arabera, koefizienteak ezar ditzakete, honakoa ponderatzeko:

a) Lokalaren kokapen fisikoa sustapen ekonomikorako eremuaren jarduketarako zona geografikoan, haren jarduketek eta zerbitzuek ekarriko dioten onura aintzat hartuz.

b) Lokalak bide publikotik sartzeko dauzkan metro linealak.

Koefiziente horiek ezin dira izan 0,4 baino txikiagoak ezta 2 baino handiagoak ere.

25. artikulua. Hobariak.

Udalek hobari hauek ezar ditzakete:

a) % 100ekoak, gehienez, ongintzako edo interes orokorreko xedeak dituzten jardueren kasuan.

b) % 50ekoak, gehienez, ekonomia-jarduerak hartzeko egoki diren higiezin okupatu gabeetarako. Hobari hori handitzen ahalko da % 60raino higiezin horien jabeek laguntzen badute merkataritzako gunea hobetzeko ekimenetan.

c) % 50ekoa, gehienez, jarduera baten lehen urtean, eta % 25ekoa, gehienez, bigarren urtean, ekintzailatza babestearen kontzeptuan.

d) % 100ekoa, gehienez, sustapen ekonomikorako eremuaren xedearen eta jarduketa planaren onurarik jasoko ez duten ekonomia-jardueretarako edo ekonomia-jarduerarik hartzeko egoki diren ondasun higiezinetarako.

26. artikulua. Ordainketa.

1. 24. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulaturako ekarpenaren zenbateko osoa urteko kuotatan hainbanatuko da, sustapen ekonomikorako eremuaren indarraldiko urte naturalak zenbat, kuotak hainbat. Kuotaren ordainketa udalak ordenantza bidez ezartzen duen epeetan eskatzen ahalko da.

2. Udalak ordenantza bidez ezarriko du kuoten ordainketa eskatzea jarduera ekonomikoak hartzeko egoki diren, etxebizitzarako erabili ezin diren eta sustapen ekonomikorako eremuaren zona geografikoan dauden ondasun higiezinen titularrei, eta haien jasanarazi beharko diete ordainketarako betebeharra dutenei 23.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat.

27. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremurako ekarpenen kudeaketa, bilketa eta aurkartztea.

1. Udalak kudeatu eta bilduko ditu nahitaezko ekarpenak sustapen ekonomikorako eremuaren kontura, horiek ezartzen dituen udal ordenantzaren ezarritako baldintzetan.

2. Udalak sustapen ekonomikorako eremuari emanen dio bildutako ekarpenen zenbatekoa, eta kopuru bat gordetzen ahalko du beretzat, kudeaketak eta bilketak eragindako gastuen konpentsazio gisa. Kopuru hori ez da izanen bildutako guztiaren % 5 baino gehiago.

3. Sustapen ekonomikorako eremuak, indarraldia bukatzean, gastatu gabe badu kontzeptu horretan jasotako zenbateko osoa, soberakina udalari itzuli beharko dio. Udalak, interes orokorra zainduta, azkendutako sustapen ekonomikorako eremuaren helburuetako bat sustatzeko erabili beharko ditu funts horiek.

4. Sustapen ekonomikorako eremuak finantzatzeko nahitaezko ekarpenen kudeaketa eta bilketa ekarpen horiek ezartzen dituen udal ordenantzaren xedatutakoari lotuko zaizkio.

5. Ekarpene horiek ezartzea justifikatzen duten interes publikoak aintzat hartuta, haien zorrak premiamenduko administrazio prozedura erabiliz exijitzen ahalko dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen ezarritako baldintzetan.

Jasotzen diren berandutze-interesen zenbatekoa sustapen ekonomikorako eremuari emanen zaio.

6. Ekarpene horren kudeaketa eta bilketa egintzak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko II. kapituluaren ezarritako moduan aurkaratzen ahalko dira.

28. artikulua. Sustapen ekonomikorako eremuen aurrekontua.

1. Sustapen ekonomikorako eremuen jarduerak bat etorri beharko du eratzten direnean indarraldi osorako onesten den aurrekontuarekin.

2. Aurrekontu-gastuen egoera-orrian zehaztu beharko dira sustapen ekonomikorako eremuak egin asmo dituen gastu guzti-guztiak, behar bezala xehakatuak. Bereziki jaso beharko dira 21. artikulutik 26. artikulura bitarte arautzen diren ekarpenekin estaliko diren gastuak.

3. Aurrekontu-sarreraren egoera-orrian zehaztu beharko dira sustapen ekonomikorako eremuaren gastuak estaltzeko aurreikusten diren sarrera guzti-guztiak, behar bezala xehakatuak. Sustapen ekonomikorako eremuaren jarduketa planak argi azaldu beharko du nola finantzatzeko diren nahitaezko ekarpenen bidez estaliko ez diren gastuak, bai eta finantzaketarako beste aukera batzuk ere, aurreikusten diren dirulaguntzak edo laguntzak azkenean lortzen ez badira.

4. Erreserba funts bat eratuko da, kasu hauei erantzuteko: ohiz kanpoko kontingentziak, jarduketa planean jasotako neurrien kostuen igoerak eta nahitaezko kuotetatik aurreikusten diren diru-sarreraren jaitsiera, kuotak ordaintzeko atzerapean, zati batean bakarrik ordaintzeak edo ez ordaintzeak sortutakoak, bai eta eremuan sartutako jarduera ekonomikoen edo ondasun higiezinen egoeraren aldaketaren ondorioz.

Jarduera ekonomikoen edo ondasun higiezinaren egoeraren aldaketaren ondorioz sarrerak handitzen badira, zenbateko horiek erreserba funtsari gehituko zaizkio.

Erreserba funtsaren zenbatekoak estali behar dituen kontingentziei aurre egiteko nahikoa izan beharko du.

5. Sustapen ekonomikorako eremuaren Batzar Orokorrak urtero onetsi beharko du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako aurrekontua, Zuzendaritza Taldeak proposatutakoa. Sustapen ekonomikorako eremuaren jarduerak bat etorri beharko du ekitaldi bakoitzerako onetsitako aurrekontuarekin.

6. Sustapen ekonomikorako eremuek fundazioen eta babesletza jardueren gaineko araudian aurreikusitako kontabilitate eta aurrekontuen arloko betebeharrak bete beharko dituzte.

Sustapen ekonomikorako eremuen urteko kontuen kanpoko auditoretza egingen da parte hartzen duten toki entitateetako batek eskatzen duenean edo sarreren urteko zifraren zenbateko garbia 150.000 euro baino handiagoa denean.

V. TITULUA Indarraldia eta azkentzea

29. artikulua. Indarraldia.

Sustapen ekonomikorako eremuen indarraldia bost urtekoa izanen da, salbu eta hitzarmenean iraupen txikiagoa ezartzen bada. Epe hori iraganik, sustapen ekonomikorako eremuaren indarraldia luzatzen ahalko da, baldin eta, Batzar Orokorri galdetu ondoren, berresten bada eraketarako eskatzen den prozedura bera erabiliz; Zuzendaritza Batzordeari dagozkio foru lege honen 6. artikuluan Sustapen Batzordearentzat ezartzen diren ahalmenak.

30. artikulua. Desegitea eta likidazioa.

1. Sustapen ekonomikorako eremua bere borondatez deseginen da, horretarako deitutako Batzar Orokor berezian hala erabakitzen duenean bertaratutako edo ordezkaturako gehiengo kualifikatuak.

2. Desegitea besterik gabe gertatuko da likidazio fasea irekitzen denean, entitatea konkurtsoan deklaratu ondoren.

3. Udalak, osoko bilkuran hala erabakita, entitateari entzunaldia eman ondoren, entitate pribatuarekiko lankidetzaz hitzarmena azkenduko du arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Onetsitako jarduketara plana gauzatu eta egoitea edo hura burutzea ezinezkoa dela agerikoa izatea.

b) Entitatearen indarraldia bukatzea berritzeko prozesua hasi gabe, edo hasi zenetik sei hilabete baino gehiago igarotzea prozesua burutu gabe.

c) Lankidetzaz hitzarmeneko konpromisoen edo helburuen ez-betetze astunak eta errepikatuak, behar bezala justifikatuta.

d) Estatutuetan edo ordenamendu juridikoan ezarritako beste edozein arrazoi.

4. Estatutuetan ezarritako prozedurak arautzen duen moduan, Batzar Orokorak eremua desegin dela deklaratu ondoren, likidazio batzorde batek gauzatu beharko du entitatearen likidazioa legez

ezarritako prozedura baliatuta. Zorrak ordaindu ondoren, soberakin likidoa, nahitaezko ekarpentatik datozen kopuruak kenduta, entitatearen irabazi-asmorik gabeko izaeraren kontrakoak ez diren helburuetarako erabiliko da.

5. Sustapen ekonomikorako eremuaren desegiteak eta likidazioak berekin dakarte foru lege honetako 21. artikuluan jasotako ekarpen ekonomikoa egiteko betebeharra azkentzea.

Lehen xedapen gehigarria. Sustapen ekonomikorako eremuak eratu eta hobetzeko laguntzak.

Administrazio publikoek sustapen ekonomikorako eremuak sustatu eta haien berri zabaltzeko neurriak onesten ahalko dituzte, komenigarritasun eta egokitasun printzipioekin bat.

Bigarren xedapen gehigarria. Emakumeen eta gizonen berdintasuna.

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako genero berdintasunaren balioarekin bat, foru lege honetan erabiltzen den hizkera inklusiboa eta ez-sexista da. Foru lege honetan genero maskulinoan egiten diren izendapen guztiak, termino generikoekin ordezkatzetik izan ez denean, genero femeninoan ere eginak direla ulertuko da, eta berdina izanen dira ondorio juridikoei dago-kenez.

Sustapen ekonomikorako eremuen ordezkaritza, kudeaketa edo zuzendaritza organoetan, emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izanen da, indarreko araudian xedatutakoarekin bat.

Hirugarren xedapen gehigarria. Agenda 2030eko helburuak.

Nafarroako Foru Komunitateak Garapen Jasangarriaren aldeko Agenda 2030aren esparruan bere gain hartutako konpromisoarekin bat, foru lege honek bat egiten du agenda horretan ezarritako helburuekin eta, bereziki 8. helburuarekin ("lan duina eta hazkunde ekonomikoa"), 11. helburuarekin ("hiri eta komunitate jasangarriak") eta 12. helburuarekin ("ekoizpen eta kontsumo arduratsuak").

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Erregelamendu bidez garatzea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

Udalek erabakiko dituzte beharrezkoak diren alderdi substantibo eta prozedurako guztiak, batez ere sustapen ekonomikorako eremuak eratze

prozedura, berresteko prozedura, zentsuaren eraketa, publizitatea eta sustapen ekonomikorako eremua baimentzeko udal erabakia.

Era berean, ezarriko dituzte sustapen ekonomikorako eremuak finantzatzeko nahitaezko ekarpenen zenbatekoa kalkulatzeko beharrezkoak diren arau aurreikuspenak.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/DEC-00036. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin bat egiten baitu

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin bat egiten du.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du funtsezkoa dela ikerketa sozial, sanitario eta biomedikoaren aldeko apustua egitea, pertsonen bizi kalitatea hobetzeko xedez.

3. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingen du heldu den irailaren 20an, ostirala, eguerdiko 13:00etan, AFAN elkartearen parte-hartzearekin.

4. Nafarroako Parlamentuak irailaren 21ean, larunbata, fatxada magenta kolorez argizatzea erabaki du”.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00366. Galdera, Estatuak ordainduko dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostuei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Estatuak ordainduko dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Estatuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostu finantzatuko dituela iragarri baita, ba al dakigu, jakin, Nafarroak zer lanpostu osagarri hartuko dituen bere gain irakasle-jardunari dagokionez LOSUK ezarritako aldaketen ondorioz, zenbatekoa zein izanen den eta zer aurrekontu-ekitaldiren kargura egingen den?

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00367. Galdera, eskola-garraioaren zerbitzuaren eskariari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, eskola-garraioaren zerbitzuaren eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

• Elena Arenaza Borja eskola-garraioaren zerbitzua eskatu zuen bere semearentzat, zeinak % 65eko desgaitasuna baitauka diagnostikaturik, eta hori dela-eta Hezkuntza Departamentura nahiz Nafarroako Arartekoarengana jo du. Hezkuntza Departamentuak zer informazio du horri buruz?

• Departamentuak nola ulertzen du Nafarroako Foru Komunitatean eskola garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta eskola-jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Aginduaren 3.2 artikulua?

“3. artikulua. Eskola-garraioaren beste onuradun batzuk.

2. Era berean, eskola-garraioaren onuradun izanen dira hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak, baldin eta 2.1.a) artikuluan zehaztutako ikasketak egiten ari badira eta Hezkuntza Departamentuak funts publikoekin sostengatutako unitate espezifikoetara edo hezkuntza bereziko ikastetxeetara bideratzen baditu, bai eta, mugitzeko desgaitasuna, desgaitasun psikikoa edo zentzumen desgaitasuna dela eta, eskualdeko hiri garraio publikoa erabili ezin duten ikasleak ere, Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuak aldeko txostena eman ondoren”.

• Ikasle horren familiari helarazi zaio ez dela izapidetuko eskatzen duen eskola garraioaren zerbitzua, ikaslea ez baita gauza ikastetxera modu autonomoan joateko, eta Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuak ez duela kasuko txostena egiten. Departamentuak nola justifikatzen du ezetza?

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/PES-00368. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik larrialdi-egoeratan gerta daitezkeen kalteei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik larrialdi-egoeratan gerta daitezkeen kalteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Reina Sofia ospitaleko zenbait guardiatan erradiologo falta dagoela-eta, zer larrialdi-egoeratan gerta daiteke pazientearentzako kaltea ekografia baten ordean ordenagailu bidezko tomografia axial bat egiteagatik edo hori egiteko Iruñera joan beharrak dakarren atzerapenagatik?

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00369. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egotearen ondorioei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egotearen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Reina Sofia ospitalean erradiologorik guardian ez dagoenean, zer egiten da ekografia bat behar duten haurrekin?

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00370. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik ZIUko pazienteei begira gerta daitezkeen kalteei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik ZIUko pazienteei begira gerta daitezkeen kalteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Reina Sofia ospitalean erradiologorik guardian ez dagoenean, zer egiten da ekografia bat behar duten eta Iruñera eramateko moduan ez dauden ZIUko paziente ez-egonkorrekin?

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00371. Galdera, kontratatutako bide, ubide eta portuetako ingeniari kopuruari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, kontratatutako bide, ubide eta portuetako ingeniari kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 3335/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen izangaien zerrendako bide, ubide eta portuetako zenbat ingeniari kontratatu dira Lurralde Kohe-siorako Departamentuko plantillan lan egiteko?

Zerrenda horretako zenbat izangai daude egun departamentuan lanean?

Zergatik ez dira lan egiten hasi Lurralde Kohe-
siorako Departamentuan?

Iruñean, 2024ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de
Muniáin Lacasia

11-24/PES-00372. Galdera, jakiteko ea osasun-sistema publikoak Espainia- ko zenbat autonomia-erkidegotan daukan enpresa-entitate publikoa- ren izaera juridikoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, jakiteko ea osasun-sistema publikoak Espainiako zenbat autonomia-erkidegotan daukan enpresa-entitate publikoaren izaera juridikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun-sistema publikoak Espainiako zenbat autonomia-erkidegotan dauka enpresa-entitate publikoaren izaera juridikoa?

Iruñean, 2024ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00373. Galdera, Nafarroako Arkeologiako Plan Zuzendariari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroako Arkeologiako Plan Zuzendariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuo Kultura, Kirol eta Turismo kontseilari Rebeca Esnaola andreak, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak erabaki bat onetsi zuen 2019ko abenduaren 18an egindako bilkuran, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu zezan. Hona haren testua: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du al bait lasterren Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan".

Denbora hau guztia iragan denez, honako hau jakin nahi dut:

Zertan da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendariaren erredakzioa?

Iruñean, 2024ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/PES-00374. Galdera, Osasun Publikoaren Institutuei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasun Publikoaren Institutuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun-sistema publikoak Espainiako zer autonomia-erkidegotan dauka enpresa-entitate publikoaren izaera juridikoa?

Iruñean, 2024ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00375. Galdera, Elizondoko osasun-etxean medikuen lanpostu hutsak betetzeko neurriei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Elizondoko osasun-etxean medikuen lanpostu hutsak betetzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer neurri zehatz jarri dira abian Elizondoko osasun-etxean hutsik dauden mediku-plazak betetzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00376. Galdera, Funtzio Publikoaren mende egoteak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat eta Osasun Publikoaren Institutuarentzat dituen ondorioei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Funtzio Publikoaren mende egoteak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat eta Osasun Publikoaren Institutuarentzat dituen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat eta Osasun Publikoko Institutuarentzat, zeintzuk dira Funtzio Publikoaren mende egoteak dakartzan ondorio nagusiak (zehazki), zeinen ondorioz aztertzen ari baitira Osasunari buruzko Foru Lege berrian izaera juridikoa aldatzea?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00377. Galdera, Egiturako, Plantillako eta Langileen Aldi Baterako Kontrataziorako Zerbitzuaren zuzendariak eta haren taldeak dimisioa emateko arrazoiei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Egiturako, Plantillako eta Langileen Aldi Baterako Kontrataziorako Zerbitzuaren zuzendariak eta haren taldeak dimisioa emateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Egiturako, Plantillako eta Langileen Aldi Baterako Kontrataziorako Zerbitzuaren zuzendariak eta haren taldeak zer arrazoi zehatz eman dute dimisioa emateko?

2. Zenbat dimisio/kargu-uzte egon dira Departamentuko zuzendaritza edo burutzetan legegintzaldi honetan?

3. Departamentuak "normalizat" jotzen al ditu urtebete eskasean egindako dimisioak eta kargu-uzteak?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/PES-00378. Galdera, Nafarroako Gobernuaren navarra.es atariko eskabide orokorraren ereduari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren navarra.es atariko eskabide orokorraren ereduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroako Gobernuak «navarra.es» atarian jarrita daukan eskabide orokorraren eredia ele

bitan soilik dago eta, gainera, lehenbizi euskara dago eta gero gaztelania. Zer arauditan oinarrituta egin da hori?

2. Zein izan da atariaren eskabide orokorraren formatua hori izateko ardura izan duen unitatea edo agintaria?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/PES-00379. Galdera, arma eta lehergaiak direla-eta Foruzaingoak jarritako salaketei eta egindako konfiskatzei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Arma eta lehergaiak direla-eta Foruzaingoak jarritako salaketei eta egindako konfiskatzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, arma eta lehergaiak direla-eta Foruzaingoak jarritako salaketei eta egindako konfiskatzei buruzko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Jada konpondu al da salaketa eta konfiskatze horiek Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzaren sisteman sartzearagozten zuen arazoa? Noiz, zehazki?

2. Zenbat salaketari eragin zion arazoak? Salaketa horietan, zer arma/lehergai konfiskatu eta/edo salatu zen adieraztea eskatzen dut.

3. Salaketarik preskribatu al da sortutako arazoaren ondorioz?

Iruñean, 2024ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

11-24/CDP-00003. Irisgarritasunari buruzko 2024ko Plan Operatiboa

ERABAKI-PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

2024ko irailaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2024ko apirilaren 23an, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak agerraldia egin zuen Irisgarritasunari buruzko 2024ko Plan Operatiboa azaltzeko.

Irisgarritasunari buruzko 2024ko Plan Operatiboa eztabaidatzeko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordearen bilkura aurreikusita, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 227.4 artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Egintzat ematea Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Irisgarritasunari buruzko 2024ko Plan Operatiboa azaltzeko agerraldia.

2. Irekitzea Irisgarritasunari buruzko 2024ko Plan Operatiboari erabaki-proposamenak aurkezteko epea, **2024ko irailaren 27ko 12:00etan** bukatuko dena.

3. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

J saila:
PONENTZIAK

11-23/PON-00002. Ponentzia bat eratzeko proposamena, despopulazioari aurre egiteko foru-lege bat taxutzeko

LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK EZETSI DU

2024ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztutako proposamena, despopulazioari aurre egiteko foru-lege bat taxutzeko ponentzia bat eratzekoa.

Iruñean, 2024ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
